BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4230

AGINDUA, 2014ko abenduaren 9koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Fundación Respeto deritzon fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena, jarduera-eremua aldatu du-eta.

Ikusita Fundación Respeto fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzeko espedientea, eta oinarritzat hartutako

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2014ko urtarrilaren 3an, Herri Administrazio eta Justizia Sailean eskabidea jaso zen Fundación Respeto fundazioa inskribatzeko, zeina ordura arte Hezkuntza eta Kultura Ministerioko Fundazioen Erregistroan baitzegoen inskribaturik 706-C zenbakiarekin; eta eskabide horren zioa hauxe da: aipatu fundazioaren jarduera-eremua aldatzearen ondorioz, eskudun babesletza aldatu izana. Ministerio horretako Idazkaritza Orokor Teknikoak egin zuen eskabidea. 2014ko apirilaren 30ean, arloko arauetan xedatutakoarekin bat, organismo horri helarazi zitzaion Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren idazki bat, non ez baitzen horren aurka azaldu. Eskabideari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoak bilkura egin du, fundazioaren helburuak zilegi eta interes orokorrekoak direla eta fundazioa ekonomikoki bideragarria dela egiaztatzeko, eta 2014ko urriaren 20an fundazioa inskribatzearen aldeko txostena eman du.

Hirugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera:

«Fundazioak helburu hauek ditu:

a) Errespetua sustatzea, joera ideologiko, politiko eta erlijioso desberdinetako pertsonen eta taldeen arteko ezinbesteko eta ukaezineko oinarria den aldetik, elkar ulertzeko eta maila guztietan gizarte-garapena eta -justizia suspertzeko.

b) Pertsonen oinarrizko eskubideak sustatzea.

c) Gizarte-sektore marjinal eta gutxietsiek arte-jardueretan parte hartzea, gizarteratzeko beste bide bat den aldetik, artearen bidez, eta lantaldeak sustatuta, erantzunkidetasunerako beste forma bat den aldetik.

d) Artistak bultzatzea, adin-mugarik gabe, euren herrietako gizarte- eta ekonomia-egoerak Arte Ederrei lotutako arloen garapen normalizatua eragozten du eta. Bultzada hori ikasketa- edo ikerketa-beken bitartez egingo da, edota fundazioak berak ordaindutako egonaldien bitartez.

e) Fundación Respeto fundazioaren helburu berberak dituzten mundu zabaleko beste fundazio batzuekin lan egitea.

f) Errespetua artearen bidez zabaltzea, sustatzea eta bultzatzea.

Fundazioak bere helburuak ahalik eta ondoen lortzeko behar dituen jarduerak egin ditzake, berezko duen jardunari lotuta.

Helburu horiek zerrendatzeak ez du esan nahi den-denak nahitaez bete behar direnik, eta ez du haien artean lehentasun-hurrenkerarik ezartzen.»

Laugarrena.– Estatutuen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, fundazioaren helbidea hau da: Peña Goñi kalea 9, 4. ezk., Donostia (Gipuzkoa), eta batik bat Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak.

Bosgarrena.– Fundazioaren dotazioa hogei pintura-lan dira, fundazioaren helburuei modu iraunkorrean atxikita, etta haien balioa hogeita hamar mila eurokoa (30.000 euro) da, halaxe baitago jasota eskudun babesletzaren lekualdatze-espedienteko dokumentazioan, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c artikulurekin bat.

Seigarrena.– Fundazioaren patronatuko kideek doan egiten dituzte euren zereginak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoarekin bat, eta honako pertsona hauek dira:

Kargua	Patronatuko kideak
Lehendakaria	Ignacio Marin Guruzeaga
Presidenteordea	Andoni Mirena Sistiaga Ochoa de Chinchetru
Idazkaria eta diruzaina	Juan Manuel Lorenzo Reiné
Ohorezko lehendakaria	Jose Maria Moraza Miranda

Izendatutako guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan xedatutako moduetariko baten bidez.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona juridiko pribatu batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa betez. Lege eta erregelamenduzko manuen arabera egin da inskripzio hau.

Ikusita aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Fundación Respeto fundazioa inskribatzeko agintzea –egun honetan eta F-381 erregistro-zenbakiarekin–, orain arte, Hezkuntza eta Kultura Ministerioko Fundazioen Erregistroan inskribatuta egon baita, 706-C zenbakiarekin. Izan ere, aipatu fundazioaren jarduera-eremua aldatzearen ondorioz, eskudun babesletza aldatu da, Patronatuaren 2013ko apirilaren 1eko eta urriaren 10eko erabakien ziurtagirien zehaztapenekin bat (2013ko apirilaren 1ekoa eta urriaren 10ekoa); eta hori eskritura publiko hauetan jaso da: Euskal Herriko Notarioen Elkargoko Diego María Granados de Asensio notarioak egiletsitako eskrituretan, 2013ko maiatzaren 2koan eta bera osatzen duen 2013ko urriaren 22koan (916. eta 2027. protokolo-zenbakiak, hurrenez hurren).

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 9a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.